



**ETXARRI ARANAZKO FERIETAKO ARTISAU ETA EKOIZLEEN AZOKA 2019**  
**Urriaren 6an, igandea, 10:00-15:00**

Ekoizle eta artisau azokan parte hartzeko izen-emate epea, irailaren 20a arte egongo da zabalik. Epez kanpo jasotako eskaerarik ez da onartuko. Azoka Urriaren 6an izango da. Irailaren 24an, aukeratukoei bakarrik, ferian parte hartuko dutela jakinaraziko zaie.

**Parte hartzeko orduan ondorengo IRIZPIDEAK hartuko ditugu kontuan:**

- Egindako lanaren kalitatea.
- Etxarri Aranazko edo Sakanako herritarra izateak lehentasuna izango du.
- Artisau ziurtagiria edo autonomoetan altan egotea.
- Lan, produktu, ezberdinak eta originalak lantzea azokaren aniztasuna bermatzeko.
- Azokan bertan norbere lanaren erakustaldia egitea, hau da lanean jarduteko aukera izatea azokak irauten duenean edota lana burutzeko egiten den prozesua ikusi ahal izatea.
- Sortzailea eta ekoizlea postuan egotea.

**Aurkeztu beharreko DOKUMENTAZIOA:**

- NAN-aren fotokopia
- Kontakturako telefono zenbakia edota e-posta
- Artisau ziurtagiria edo autonomoetan altan egotearen ziurtagiria.
- Norbere lanaren deskripzioa.
- Norbere lanari buruzko azalpena. Lana hobeto ulertu ahal izateko edozein informazio gehigarri kontuan hartuko da (argazkiak, blogak, webguneak ... ).
- Postua jartzeko beharrezko neurria metrotan.

**Proposamenak aurkeztu:**

Proposamen guztiak Etxarri Aranazko Udalean jasoko dira e-posta, posta arrunt bidez edota eskura utzita:

ETXARRI ARANAZKO UDALA  
Kale Nagusia, 10  
31.820 Etxarri Aranatz (Nafarroa)  
Telefonoak: 948460004 / 948 460930 / 606239008  
E-posta: kultura@etxarriaranatz.eus  
Orduategia: Astelehenetik ostiralera, 10:00-14:00

Norberak bere postua hornitzeko behar duen materiala ekarri beharko du.  
Euriagatik sortutako kalteez ez da arduratuko Etxarri Aranazko Udala.